

ERRUBE BATIAN.



(NERE LAGUN FELIPE KASAL-I)

Bei, auntz eta akuriyakin
Ollar ta ollotaldea,
Bizi ziraden denak nastuan
Ederturik errubea;
Ollar gallenak kukurrukuka
Egin oi zuben galdea,
Inguru ortan ote zebillen
Jechi nairikan, belea.

Denak batean asten baziran
Beren izkuntza nastuan,
Egon oi ziran išildu gabe
Oso denbora askuan;
Arratoi zarrak dantzatzen ziran
Oyen musika soñuan,
Eta katua marriškatzen zan
Neurri on eta doñuan.

Arratoi zarrak ala dantzan ta
Aben zai berriz katua,
Zeguen guztiz larriturikan
Gogoz sartzeko kakua;
Denen artean ere arrantzaz
An egon oi zan astua,
Aldizka janaz bere askatik
Zai, iriñ eta lastua.

Beñ, bakarrikan gelditu ziran
 Arratoi eta saguak,
 Non asi ziran berenganatzen
 Jankai onchuen anguak;
 Baziruriten zirala nausi
 Bakartasun artakuak,
 Bañan ayetan batek zepuan
 Sartu zituben zankuak.

Miñ zuben eta gogor egiten
 Zuben zepotik karrañi
 Ziyon artian eritasunak
 Bere biziya galazi;
 Beste guztiyak aguro zuten
 Egin zulora igesi,
 Baten gaitzetik zuten bestiak
 Zer zan gauz charra ikasi.

.

Ipuicho onek orra zer digun
 Gizonari erakutsi,
 Licharkerizko lanakin iñor
 Geldi ez gaiten itsusi;
 Bakarrik iñon egonagatik
 Ez pentsa gerala nausi,
 Leku berean bear dirade
 Iñoren gauz denak utzi,
 Edo bestela arratoi gisa
 Giñezke gaizki ikusi.

JUAN IGNAZIO URANGA.

